

Euskonews: bostehun aste interneten



Hamaika bat urte eman dira Euskonews sarera agertu zen unetik eta 2009ko irailaren 18an 500 zenbakiarekin agurtu zituen Eusko Ikaskuntzak Internet dituen ehun milaka lagunak. Ospakizun xumea izan zen, asteroko maiztasunarekin aldizkaria argitaratzeko 1998an konpromisoa hartu zuten arduradunen artean. Ez zen gutxiagorako. Zenbat izerdi, zenbat estualdi, zenbat alaitasun, zenbat ahalegin bost ehun astetan zehar! Baina merezi izan du, bai horixe!

Oroimenaren apaletan eta erregistro elektronikoetan geratzen dira orain arteko historiaren urrats guztiak. Mugarririk azpimarragarrienak, berriz, iltzatuta baleude bezala daramazkigu gure barnean, izan ere Euskonewsen garapen etengabea jarraitu dugunok ongi dakigu zein abentura izan den buruturikoa. Eta, guztien izenean hitz egin dezakedalakoan nagoenez gero, ahaleginak gogo bete egin gaituela esango nuke.

Bostehungarren zenbakiaren elkarrizketa Mikel Atxagari eskaintzea ez zen ustekabez egokiturikoa. Ez. Azken berrogei urteotako euskalgintzaren kazetaririk jorienetakoari omenezko keinua egin nahi izan genion efemeride biribilaren aukera aprobetxatuz. Atxaga izan genuen euskal kazetaritzaren aro aberats bateko adibiderik argiena eta bere irudia Euskonewsekin uztartzea euskal kazetaritza berriaren proiektio egokia iruditu zitzaigun.

Euskonewsek ireki zituen bide berriak euskal kazetaritzan. Eta egunez egun egonkortzen joan da bere eskaintza, aldamenean espresio lanabes ugari sortu direlarik. Etorkizunerako apustua izan zen hastapenetan eta amets bihurtzera ere iritsi ez ginen etorkizunean gaudelako oinarri ederra eraiki dugu geroak zer ekar

diezagukeen pentsatzen jarraitzeko. Bostehun zenbaki sarean, milaka hitz eta irudi, neurtu ezineko ilusioaz ongarrituta. Horixe dugu emaitza.

Eusko Ikaskuntzak asmatu egin zuen 1998an, dibulgaziorako sistema berrien aldeko jarrera irekian. Ezelako aurreiritzi gabe, bekoki zabaleko jarrera positiboan oinarritua, toki eman zitzaizkien lehen unetik, euskal kultura –bere orokortasunean ulertua– bultzatzeko prest zeuden guztiei. Internet genuen proba eremua eta espazio hark zer ekarriko zigun oso garbi ez bagenuen ere, han egon behar genuela iruditu zitzaizgun, oportunitateak ausartek bakarrik eskuratzen baitituzte.

Eusko Ikaskuntzak euskal kultura unibertsalagoa egin du Euskonewsen bitartez. Ehun urte baino gehiago igaro da RIEV-ek bere edukiak mundu osora hedatzeari ekin zionetik. Oraindik hortxe ari da, zintzo-zintzo, bere betebeharrarekin kunplitzen. Euskonewsekin lanabes osagarria izan du Eusko Ikaskuntzak mendetako argitarapenari laguntzeko, berez elkartearen helburu nagusia den euskal kulturaren suspertze eta hedatze ahaleginetan. Eta Eusko Ikaskuntzaren barnean bi argitarapen lerro bateragarri sendotu zaizkigu, bi abiadura tipo desberdinarekin, baina xede bakarra dutela. Egonkortu egin dira eskaintzan eta gerorako proiektzioan ere bai.

Euskonewsek marka guztiak hautsi ditu Eusko Ikaskuntzaren agerkarien artean, bai edukien kopuruari dagokionez zein egileen eta irakurle kopuruaren aldetik ere. Oso plataforma eroso bilakatu da, beren ekarpenak era dibulgatiboan aurkeztu nahi dituztenentzat. Eta xumetasun horretan oinarritu du astekariak bere arrakasta. Hiru mila ekarle baino gehiagok eskaini dute euren ezagutza, modu eskuzabalean. Denetarik jakintza esparruak jorratu dira, tradizionalenetatik aurrerakoienetara, ezeri muzin egin gabe. Eta zer esan irakurleei buruz? Euskonewsen abenturari ekin aurretik ez genuen suposatatu ere egin, munduan barrena euskal kulturak hainbeste lagun izango zuen. Egiaztapen horrek poztu egin gaitu, baina baita erantzukizunez bete ere, nola gainera!

Euskonews eleanitza jaio zen, eta lehen bostehun zenbakiek garbi utzi digute euskarari eman diogun tratamendua egokia izan dela, eta Eusko Ikaskuntzaren argitarapenen arteko portzentajerik handiena lortu da gure hizkuntzaren erabilpenari dagokionez. Euskara hizkuntza gutxitua denez gero, irits daitekeen mugetaraino heltzen da; muga hurbilak, zalantzarik gabe. Hori garbi asko azaltzen digute gure estatistikek. Baina euskara indartua ateratzen ari da Euskonewsen ematen zaion formularekin. Izan ere, euskaraz sortutako edukiak dagokion itzulpenarekin hedapen biderkatua lortzen du, askoz handiagoa delarik orijinalaren bertsio itzulia, hori espainiera, frantsesa edo ingelesa izan daitekeelarik. Euskarazko testua euskaldunon aukeran dago, baina ez zaie bidea mozten edukiaren muinaz jabetzeko nahia duten ez euskaldunei. Irabazten atera gara, beraz.

Hazten joan da Euskonews, astez aste. Berrikuntza errealitate jarraikia izan da, karrankarik gabe inplementatua. Duela hamaika urteko Internet eta egungoa ez dira berdinak baina Eusko Ikaskuntzak, urratsez urrats, erronkari gogoz eutsi dio, lehen uneko ilusio berdinarekin. Aitzindariak izan ginen, eta izaera horrek ematen duen erantzukizunak bideratu gaitu egunero. Teknologia aurreratu dira



eta aldizkariak baliabide berriak bereganatu ditu. Hazten gorputzez eta edukiz aberasten joan da, etengabe.

Euskonews espazio zabala eta margo askotarikoa dugu, Eusko Ikaskuntza bera bezala. Erakundeak berak betidanik ezaugarri izan duen askatasunaren zeinua islatu dugu gure agerkarian. Euskaldunon arteko komunikazioa sendotu nahi izan dugu astekariaren lehen zenbakitik eta hain bihurria dugun elkar ezagutzarako zubiari zutabe indartsua jarri diogu. Euskal Herriak gero eta gehiago behar ditu leku zabalak denon arteko bizikidetzarako, denetariko sentsibilitateak –euskalduna barne, noski– duintasunean garatu ahal izateko. Euskal gizartean ohitzen ari gara konformitatera. Pasibotasunera eraman gaitu euskaldunon urte luzetako egoera konplikatuak eta edozein harritzarekin gosaltzeko prest agertzen gara sarriegi, nekatuegi gaude-eta; nazkatuegi, beharbada.

Gure astekariak aukera ematen digu, ezelako eragozpen eta aurreiritzirik gabe, elkarri behar diogun begirunearen barruan askeak izateko. Eta ez dira nolana hikoak gertatu, Euskonewsen – Eusko Ikaskuntzaren, azken finean- jarra irekiak ekarri dizkigun talkadak. Baina horixe da ordaindu behar den bide saria, gurearen gisako giza kolektibitate batean baldintza guztiekin lan egitera borondatea azaltzen den unetik. Horren gainera ibili behar genuela bagenekien arren, ez da samurra izan, inolaz ere! Zein aldrebesa dugun gure herri hau! Baina garaile ateratzen ari gara, azken finean askatasunak komunikaziorako osagai ezinbestekoa dela berriz ere erakutsi du-eta.

Duela hamaika urte jaio zen Euskonews aldizkariak ez du oraingoaren itxura fisikoa. Egunez egun, astekariaren ardura teknikoarekin ari direnek ahalbidetu dituzte bitarteko berriak Euskonews atseginago, erabilpenerako samurrago, beteago bat erdiesteko. Eta abantaila horiek biderkatu egin dute erabiltzaileen multzoa, edukiak modu errazagoan zerbitzatu ahal izan baitira. Eusko Ikaskun-

tzaren helburuarekin bat, Euskonewsen lan egiten duen talde profesionalak –kazetariak, informatika teknikoak, argitalpen batzordekideak...– bikain erakutsi du bere ahalmena.



Euskonewsek hamaika urte horietan ekarri zigun beste berri on bat izan da Euskonews Gaztearen jaiotza, 2007an. Gazteek gazteentzat egina, modu pertsonalean ekoiztu ditu bere ekarpenak Euskonews Gazteak, lanean milaka neska mutil jarri dituelarik. Euskara hutsean argitaratua, dagoeneko irabazi du bere esparrua euskal agerkarien zerrendan. Ez da makala, ez horixe, astero-astero aldizkari edukia ekoiztea, horretarako Eusko Ikaskuntzako arduradunek Euskal Herri osoko ikastetxez ikastetxe ibili behar dutelarik, gazteengan euskal kulturarekiko grina indartu nahian.

Ez da berrikuntza bakarra Euskonewsek azken aldian eskaini ziguna. Horra hor, beste adibide eder bezala, Euskonews Multimedia izenekoa, Eusko Ikaskuntzak audio eta bideoarekin ekoizturikoa erakusten duena. Elkarrekin herrialde desberdinetan zenbait irratirekin dituen saioetako milaka ordu entzun daitezke espazio birtual horretan. Egundoko material aberatsa bilakatu da, euskal kulturaren gain zertxobait gehiago nahi duten guztientzat. Bide bertsutik, audioari azken bi urteotan gehitu zitzaizkion bideo formatotan Eusko Ikaskuntzak- Euskomedia Fundazioaren bitartez- grabatutakoak. Azkenik, Euskonews Multimedian bada beste berrikuntza bat, idatzitako artikuluak entzutea eskaintzen duena.

Bidea ibiltzeaz egiten dela aspaldi dakigu eta horixe bera azaldu du Euskonewsek. Etorkizuna nolakoa izango den asmatzera jokatu ez dugunez gero, eguneroko ihardunari eskaintzen diogu garrantzia, eta horrek ahalbidetzen dizkigun aukera guztiak formulari jartzeko prest gaude, zertarako-eta Euskonews hobe bat egiteko uneoro, etengabe. Izan dira bostehun aste eta etorriko dira gehiago. Altxor preziatua eraiki dugu eta gogo berriekin lotzen gatzazkio lanari, ahaleginean pertsona berriak gehitu zaizkigula azpimarratuz.

Egindakoa hortxe dago. Euren ekarpena eskaini duten milaka lagunei esker egonkoritu da euskal komunikabideen esparruan Euskonews. Masa kritiko zabal eta joria dugu prest, esku hartzeko astekariaren garapen multifazetikoan. Horrexek indarra ematen digu, orain arteko mugak are zabalagoak egin ditzagun. Denon artean.

Josemari Velez de Mendizabal